

Zer egin dezakegu etxean?

Hobeki kontsumitu

Hondakinik hoberena? Sortzen ez dena! Hondakinaren prebentzioan funtsezkoa da erosketara atera eta zenbait ohitura aldatzea besterik ez da.

Erosketak egitera atera baino lehen, bererabil daitezkeen poltsa, saskia edo erosketarako orga hartu eta behar ditugun gauzen zerrenda egin.



Dendan, produktu bat erosi aurretik geure buruari honako galdera hauek egin: benetan behar dut? Aukeran, badago berrerabili daitekeen edota bizitza luzeagoa duenen bat? Bilgarri gutxiagokorik, gabe-korik edota birziklatu daitezkeenik? Formatu handikorik? Berriz kargatu daiteke?

Bertako produktuak eta sasoikoak erosi, bilgarri gutxiago behar dute.

Erosi ordez, ahal dela, errentan edo mailaguan hartu

Nafarroan kontsumo arduratsuen

alde lan egiten duten erakunde ezberdinak daude eta, gero eta gehiago dira, produktu ekologikoak edota merkataritza justukoak erosi daitezkeen lekuak



Produktuen bizitza luzatu

Oso ohikoa izaten da erdi hondaturik edo modan ez dagoen zerbait zakarrontzira botatzea. Baina badaude irtenbide edo aukera oso errazak produktu horiei bigarren bizitza bat emateko, berrerabiltzeko edota elkartzunera bideratzeko.

Zerbait bota baino lehen galdera hauetan erreparatu: konpondu daiteke? Eraldatu edo transformatu daiteke? Beste norbaitek erabil dezake? Produktu askok bigarren bizitza bat izan dezake te, zergatik baztertu?.

Europar, biztanleko, tamaina handiko 52kg hondakin botatzen ditugu urtero! (tresna elektrikoak, altzariak, arropa eta abar)

Galdetu zure Mankomunitatean tamaina handiko hondakinak biltzeko zerbitzuaz. Bazenekien Nafarroan bigarren eskuko gauzen saltoki edo azokak daudela?

Hondakin gutxiago bota

Aurreko aukerak baliatzeaz gain, gutxiago botatzea kontsumo jasangarriaren alde egitea da.

Gure produktuak ahalik eta hoberen erabiltzeko eta zakarrontzira gutxiago botatzeko, nahikoa da zenbait ohitura erraz aldatzea: tresnak denbora gehiago iraun dezaten egoki mantendu, gutxiago eralgitzeko iraungitze datak begiratu, kontsumoa murrizteko dosi edo neurri doiak erabili edota berri bat hasi baino lehen produktu bat erabat bukatu.

Gutxitzea ere bada

Hobeki ekoiztu

Ekodiseinua, produktuaren bizi-ziklo guztian zehar, sorreratik amaiera arte, ingurumenean sortzen duen eragina kontuan izatean datza.

Aluminioa bezalako materialak, hondakin asko sortzen dute euren bizi-ziklo guztian zehar; beste batzuk aldiz, egurra esaterako, ez dute hondakinik sortzen.

Ekodiseinatutako produktuak aukeratu!


Nafarroan produktu ezberdinen ekodiseinuan lan egiten duten enpresak daude

Konposta

Etxean egindako konposta balio handiko prebentzio jarduerak da.

Lorategia baldin baduzu, hondakin organikoak zure landareen ongarririk bihurtu ditzakezu

Gero eta mankomunitate eta udal gehiago garatzen ari dira horrelako programak: Iruñerrikoa, Iltzarbeko, Bortzirietakoa, Sakanakoa, Mairagakoa, Arangurengo Mankomunitatea, Altsasukoa eta abar.




Hondakinen prebentzioa?

Europar Batasunean, ia bikoiztu egin dira udal-hondakinak azken 30 urtetan. Planeta zaborrontzi erraldoi bat bihurtzen ari gara!!

“Prebentzioa”, ingurumenean eta osasunean eragin kaltegarriak sahisteko neurriak hartzea da. Horrek, honako jarduerak burutzen dakar:

- Sortzen dugun hondakin kopurua gutxitu, ez soilik erabilgarri izateari uzten diotenean, baizik eta produktu baten bizitza guztian zehar (diseinutik hasi eta bizitzaren amaiera arte),
 - Osaketa materialak kontuan hartu eta sortzen diren hondakinak ingurumenean ahalik eta kalte gutxien eragin dezaten saiatu.



Zergatik da garrantzitsua eragitea?

Sortzen dugun hondakin kopuru izugarriak, ondorio hauek dakartza: energia eta lehengaiak xahutzea, aldaketa klimatikoa azkartzea eta baliabide naturalak agortzea. Hondakin kopurua handitzeak eta hauek kudea-tzeko zailtasunak, gero eta garestiago egiten dute herritarrok zerga bidez ordaintzen dugun hondakinen tratamendua.


Jatorrizko prebentzio jarduerak lan postuak sortzaz ditzake (sentsibilizazioan, tresnen konponketan, berrerrabiltzean eta abar).

Elkarrekin aritu gaitzake!


Prebentzioa: 12 jarduerak

Jarraian, hondakinen prebentziorako 12 neurri erraz proposatzen dizkizugu:

- Ontziratutako gabeko produktuak erosi
- Txorrotako ura edan
- Ez onartu publizitatezko zure postontzian
- Erabili eta botatzeko diren mukizapi, trapu eta eskuoihalak erabili ordez, telazkoak erabili
- Erabiltzen ez dituzun gauzak oparitu edo trukean eman (arropa, jostailuak...)
- Askaria eta gosaria kutxatxotan edo telazko poltsetan eraman
- Ahal dela, produktuak berriz erabili
- Mailegu eta liburutegi zerbitzuetara jo
- Bigarren eskuko denda eta azoketan erosi
- Etxetresna elektrikoak, altzariak eta arropa, berriak erosi ordez, konpondu
- Papera bi aldetatik erabili eta inprimatzea murriztu



HONDAKINEN PREBENTZIORAKO GOMENDIOAK



**Batera, murriztea
da bidea**